Hitz hasieran, Hrik gabe: aragi, aurride, ezür, igitü, odel, ogen (hoben), adi (had)...

Hasperenari dagokionez, bertako hitz zuberotarrak ahoskatu bezala idatzi behar dira, jakina, betiere bokalarlean edo hitz-hasieran bada: haboro, hüllan...

Herskari leherkari bitxi horiek (Kh Ph Th)

Hots talde hau ez da iparraldeko euskararen bitxikeria bat. Lehenik, Hegoaldean ere garai batean hots arruntak ziren, Arabako herri zerrandek (1000 aldera) ontsa erakusten dituzenez. Bigarrenik, gaur egungo ingeles hizkuntzan ere biziki hedatuak dira herskari leherkariak. Hala ere, frantsesari eta espainolei arrotz egiten zaizkie eta herskari ahoskabeekin asimilatzen dituzte (K P T), horien ama hizkuntzetan hotsik hurbilenak baitira.



Aita Junes Casenave-Harigileren Euskara Xiberotarraren Gramatikak zer dioen

absolutua	NOR	Ø	
ergatiboa	NORK	-k	
datiboa	NORI	-i, -er	
genitiboa	NOREN	-en	
leku genitiboa	NONKO	-ko	+ 'noizko' + 'zertarako' ere bai
soziatiboa	NOREKI	-ki	-kin, -kila eta -kilan ere bai
destinatiboa	NORENTAKO	-entako	-entzat ere bai (Mendebaldeko era)
motibatiboa	NORENGATIK	-gatik	
instrumentala	NOREZ, NORTZAZ	-z, -tzaz	-taz ere bai
inesiboa	NON	-n, -tan	+ 'noiz' + 'zertan' ere bai
ablatiboa	NONTIK	-tik, -rik, -ganik	+ 'noiztik' + 'zertarik' + 'noretarik'
adlatibo soila	NORA	-la, -ra, -gana	→ helburua adierazten da
hüllantze adlatiboa	NORAT	-lat, -rat, -ganat	→ norabidea edo helbururako bidea
muga adlatiboa	NORA ARTINO	-rano, artino	+ 'noiz artino' + 'norano' ere bai
partitiboa	NORIK	-ik	
prolatiboa	NORTAKO	-tako	-tzat ere bai (Mendebaldeko era)

Jean Larrasketek eta nik azaldukoaren aldean, gramatikagileak 'nora' eta 'norat' kasuak ia alderantzizko era batera bereizten ditu. J.B. Coyos eta Sü Azia kultura elkarte mauletarra bat datoz autore santagraztarrekin, baina Jacques Alliersek Larrasketen azalpenak hautatu zituen (irakur 'Manuel pratique de Basque', 'zuberera' sarerra). Baliteke auzi honen inguruan adiera-ebzberdintasun handia izatea Zuberoko ipar-ekialdeko eta gainontzeko eremu zuberotarren artean.

Opazkoaren hiru aldiak:

Iraganaldiko opazkoa: **AILITZ mintzaTÜ!** eta **AILÜ galDÜ!** ereduak.

Orainaldiko opazkoa: **AILITZ mintzaTÜRİK!** eta **AILÜ galDÜRİK!** ereduak.

Geroaldiko opazkoa: **AILEDI mintza!** eta **AILEZA gal!** ereduak.

ALDIA / MOTA	AURREKOA (baldintza)	ONDORIOA: 1. aukera	ONDORIOA: 2. aukera
GEROALDIA (agian)	ikus baleza ikus[ten] ahal baleza ikusi nahi baleza	ikus liro(ke) ikus[ten] ahal liro(ke) ikusi nahi liro(ke)	- - -
ORAINALDIA (gaitasuna)	ikusten balü ikusten ahal balü ikusi nahi balü	ikusten lüke ikusten ahal lüke ikusi nahi lüke	*ikus lüke (okerra da) - -
IRAGANALDIA (gertatu ez zena)	ikusi balü ikusi ahal üken balü ikusi nahi üken balü	ikusiko züan ikusten ahal zükean ikusi nahi zükean	ikusi(rik) lüke ikusi ahal üken lüke ikusi nahi üken lüke

Perpaus mota	Aditz jokatu batekin	Aditz jokatu gabe batekin
Konpletiboak	aditzkia + aLA	
Erlatiboak	aditzkia + aN [zoin] / [non] ... BEIT + aditzkia apozizioa: aditzkia + aN + deklinabidea	aditz burutua + rIK
Zehar-galderak	zer ... aditzkia + aN	zer + aditzzoina / aditz burutua
Denborazkoak	aditzkia + aNEAN aditzkia + aLARIK aditzkia + aiNO aditzkia + aN ALDI OROZ	aditz izena + TZEAN (noiz?) aditz izena + TZEEZ (zer dela?)
Kausazkoak eta helburuzkoak	aditzkia + aLAKOZ ZEREN ... [beit] + aditzkia BEIT + aditzkia	aditz izena + TZEKO (zergatik?) aditz izena + TZERA (zertara?) aditz izena + TZEEZ (agindua)
Moduzkoak	aditzkia + aN BEZALA	aditz burutua + rIK aditz izena + TZEEZ (nola?)
Kontzesiboak	BA + aditzkia + ERE	aditz burutua + rIK ERE aditz burutua + aGATIK [ERE]
Baldintzak	[BALIN] BA + aditzkia	
Aukera galderak	[EIA] ... aditzkia + aNEZ	
BAI ala EZ erako galderak	aditzkia + A?	

Zubereraren deskribapena

Eskulako aldekotik abiatuz

2.2. ZUBERERAREN GAUR EGUNGO EZAUGARRIAK



Zubereraren hainbat bereizgarri kapitulu-bukaeretan gogorarazi ditugu, Koldo Zuazok azpimarratutakoa bilduz⁽¹²⁾, eta jarraian laburbilduko ditut. **1/. AHOSKERA.** Arkaismoen aldetik, N eta L ondoko herskari ahostunak, hasperenaren maiztasuna eta indarra, bokal sudurkariak, azentua (erromantze biamesaren moduan, oxitono edo paroxitono) eta bokal arteko herskari ahostunen egonkortasuna⁽¹³⁾: eGin, iBili, eDan (sinkoparik gabe). Berrikuntzen aldetik, U > Ü, O > U, UA > ÜA > IA eta AU > AI bilakaerak, i + a > I eta u + a > U asimilazioak, IA > ÜA asimilazioa (uzkia > üzkoa, ahoska /üzkia/), / 3 / eta / z / txistukari ahostunak eta R dardarkariaren bilakaerak (bokalarkeko sinkopa, bustidura inoiz). **2/. DEKLINABIDEA.** Badira nabarmentzeko bereizgarri gutxi: datibo pluralaren -ER atzizkia, soziatiiboaren aldaerak (noreki, norekin, norekila eta norekilar), 'nora' kasuaren itxurak (nora edo norat, -ALA edo -ALAT singularrean). Izen bereziek NORA eta NONDIK kasuetan dituzten era bereziak ere nabarmentzekoak dira. **3/. ADITZAK.** Adizkiei dagokienez, honako bereizgarri hauek azpimarratzekoak dira: NOR NORI NORK saileko adizkien -E-erroa; NOR NORI NORK eta NOR NORI saileko adizkien -(T)Z- pluralgilea; NOR NORI saileko iraganaldiko adizkiek ZIT-aurizkia ez edukitzea; iraganaldiko hika-nokako adizkien bukaerako -Naren galera (ezaugarri burutugabea); iraganaldiko subjuntiboko adizkien L-aurizkia (3. pertsona). Züka tratamendua, aditz trinkoen ordezkatze prozesua, üken / izan oposizioa eta *IRO aditz laguntzaileak beste bereizgarri batzuk dira. **4/. ALDIAK.** Aspektu burutuaren azaltzeko, partizipioei -RIK erarsten zaien. Indikatiboko geroaldikiak ibura bereziak ditu: geroaldi trinkoa, aditz burutuaren -EN marka zaharra eta 'izanenko' tankerako era pleonastikoak. Zubererak bi baldintza hipotetiko dauka, 'balitz-balü' sailekoak eta 'baledi-baleza' sailekoak. Botibo moduak aipatzeko modukoak dira, baina ez dira ia erabiltzen. **5/. JOSKERA.** Morfologiaren aldetik, zenbait bereizgarri aipatzekoak dira: mugagabearen erabilpena izenondoa predikatu osagarria denean (semea hon düzü) eta izenak multzo balioa duenean (ogi badit); izen-atzizkien aukerak: -SA atzizki femininoa, -OT, -XKOT eta -ÑI txikigariak, -KAL aldiko atzizkia; aditz izenen objektu zuzen diren izen-taldeak genitiboan ezartzen dira (Inaren egiteko); 'ari izan' lukuzioaren balioak iragankorra, erauntsi; ARRA errepikapeneko aurizkia, BEIT-aurizki menderagailuaren erabilpenak. **6/. LEXIKOIA.** Alor zabalegia da xehetasunetan sartzeko. Euskalki guztiek bezala, zubererak berrikuntzak -erdarari hartutako lexikoa (berezi biamesari) eta Zubereroan bertan sortutako hitzak- eta arkaismoak (Euskal herriko beste alderdian galdutako lexikoa) nahasten ditu. Aztertutako 5.000 hitzetik, 900 biamesari hartuak eta espainolari beste 600 hauteman zituen Peillenek. Zubererak tokian-tokio aldaerak ere sortu ditu, hala nola I > E bokal-iriekera (baita alderantzizko gertakaria ere) eta asimilazio mota bat dituztenak.

2.3. ZUBERERA NOLA IKASI EUSKARAREN OINARRI BATZUK JAKINIK

Kontu hauekin guztiekin, bada, zer erakutsi nahi dugu? Kapituluaren hitzaurrean irakurle euskaldun ez zuberotarra zubererari hurbiltzeko asmoa gurela aitortu dugu, Eskulako aldeko euskaratik abiatuz. Bertako euskarari buruzko azalpenak (B2-B7 kapituluak) zubererari buruzko azalpen orokorrek (B8.2.2 atalekoekin) osatu ditugu, zubereraren uesteko ezaugarri andana batek beste euskalki batzuetakoa ere badirela azpimarratuz. Bestalde, atal honetan emandako euskararen berrikuntzen sorguneei buruzko azalpenak gogorarazi digute gaur egungo euskalki guztiak hizkuntza bakar batetik datozela, erran nahi baita euskalki guztiek oraindik ezaugarri komun talde handi bat dutela. Bestela erranik, euskalkiak lotzen dituzten ezaugarriak bereizten dituztenak baino anitzez ere gehiago dira. Ondorioz, zuberera aztertu edo ikasi nahi duen euskaldun orok berak dakienetarik abiatu behar du, eta liburu honetan azaldukoaz jabetuz gero aski erreferentzia ukanen du zubereraren oinarrien bereganatzeko, gramatika batera jo behar gabe. Dena dela, irakurleak zubereraren laburpen bat eranskinetan eskuragarri dauka, zubereraren oinarriak saika, laburbildurik eta ortografia estandarrean idatzita aztertu nahi baditu⁽¹⁴⁾.

Irakurleak zuberera sakonkiago aztertu nahi badu, hainbat ikasmaterial ditu eskuragarri. Eduki teorikoei dagokienez, honako liburu hauek gomendatuko nituzke:

- ▶ **GRAMATIKA EMENDAKINAK ZUBEROAKO EUSKARAZ** (Jüje Etxebarne, *Euskaltzaindia*, 2010): zubereraren gramatika osoa⁽¹⁵⁾.
- ▶ **HIZTEGIA FRANÇAIS EÜSKARA** (Junes Casenave, *Hitzak*, 1989): frantsesetik zubererara.
- ▶ **HIZTEGIA II EÜSKARA FRANÇAIS** (Junes Casenave, *Hitzak*, 1993): zubereratik frantsesera, zuberotar aditza eranskinetan.
- ▶ **LE PARLER BASQUE SOULETIN DES ARBAILLES** (Jean-Baptiste Coyos, *L'Harmattan*, 1999): zubereraren azterketa linguistikoa.



Zubereraz nola idatzi eta ahoskatu: laburpena

Zubereraz nola idatzi: laburpena

Zubereraren idazkerari buruzko oharrak liburu honetan han hemenka egin ditugu, eta jarraian laburbilduko ditugu:

Zuberera nola idatzi	B2.	166 or.
Bokalak nola idatzi	B2.1.	169 or.
Herskariak nola idatzi	B2.2.1	171 or.
Txistukariak nola idatzi	B2.2.2	174 or.
Dardarkaria noiz eta nola idatzi	B2.3.	174 or.
Bustidura idatzi behar ote	B2.4.	176 or.
Hasperena noiz idatzi	B2.5.	179 or.
Gainontzeko hotsak nola idatzi	B2.6.3	180 or.
Deklinabide-atzizkiak	B3.5.2	192 or.
Badaozpadako adizkiak	B4.2.1.1	200 or.
Adizki alokutiboak	B4.2.1.2	201 or.
AHAL, ez ahal	B5.3.1.1	225 or.
Alegiazko baldintza eta ondorioa	B5.4.6	230 or.
Izenak eta izenondoak: MAILAK	B6.1.	238 or.
NAHI eta BEHAR	B6.2.3.	248 or.
Perpau motak	B6.3.	255 or.
Hiztegia	B7.3.3	270 or. - 282 or.
Lekukotasunak	B8.3	295 or. - 299 or.

Zuberera nola ahoskatu: laburpena

Eskulako aldeko ahoskera zuberera estandarrenaren eredutzat har daiteke, zuberera biziki euskalki homogeneoa baita. Bertako ahoskeraren bereizgarriak bi taulatan laburbilduak ditut:

Bokalen aldakuntza eta bilakaera ohikoak	B2.1.	170 or.
Kontsonanteen aldakuntza eta bilakaera ohikoak	B2.2.	177 or.
Hitz oxitonoak eta paroxitonoak	B2.3.	182 or.

Laburpenak laburpen, oso lagungarria da zubererazko idatzien irakurtzea, eta ahal den neurrian zubererazko grabaketan edota irati-saioen entzutea (Xiberoko Botzan, adibidez).



Zuberotar zahar bat Bizkaian

Bilbon izan gütük aste batez iga'nik, Andrea, Maurice semea, Marie-Jeanne Maurice-en emaztea eta ni. Ene üska' xiberotarra'iki ahal bezala mintzatü gütük, borbxa borbxa segür. Maurice eta Marie-Jeanne ezta'kie üska', Maurice'ek alba zunbait baizik. Bena biek emaiten dte emaiten dte ikhusi diagu ha'itxa eta me'ia (herriko etxia) eta harriko etxe handi zunbait. Bena enakia, ez bestek e', nun zen Industria kalea eta egün batez Philippe Etxegorri hor zatekila...

J. Mainhagü, 1998/06/24ean

Bilbon izan gaituk aste batez iraganik, Andrea, Maurice semea, Marie-Jeanne Mauriceren emaztea eta ni. Nire euskara zuberotarrarekin ahal bezala mintzatu gaituk, borbxa-borbxa segur. Maurice eta Marie-Jeanne ez zakitek euskara batua. Maurice eta Marie-Jeanne emaiten dte emaiten dte ik. Izan gaituk Gemikan eta ikusi diagu haritza eta herriko etxea eta harriko etxe handi zenbait. Baina ez nekian, ez bestek ere, non zen Industria kalea⁽¹⁾ eta egun batez Philippe Etxegorri hor zatekeela (hor izanen zela)...

Bizkalerarekin nik izandako lehen harremanak gogoratzen ditut, eta oraindik imbaretxo batekin kontatutako "gertakaria" ikusten ditut: zuberotar zahar bat bizkaitar batekin solasean, bata üska'z eta bestea ... euskerfez! Hala ere, elkar ulertzea lortu omen zuten, horek baleztatzen baitu gogo onarekin muturreko euskalkiak ez direla erabat ulergaitz.


P. E.

1998/06/24 - ZUBEROTAR ZAHAR BAT BIZKAIAN

Bilbon izan gütük aste batez igararik, Andrea, Maurice semea, Marie-Jeanne Mauriceren emaztea eta ni. Ene euskara xiberotarrarekin ahal bezala mintzatu gaituk, borbxa-borbxa segur. Maurice eta Marie-Jeanne ez dakie euskara batua. Maurice eta Marie-Jeanne emaiten dte emaiten dte ikhusi diagu haritza eta herriko etxea eta harriko etxe handi zunbait. Bena ez nakian, ez bestek ere, non zen Industria kalea eta egün batez Philippe Etxegorri hor zatekeela...

Bi azpi-liburuen arteko lotura eta emaitza

A azpi-liburuan: giza taldeak eta etxalde euskaldunen kokapena



B azpi-liburuan: Eskiula aldeko euskararen eremua

Eskiula aldeko euskararen eremua

Eskiulako itzuli osoa egin eta gero, Eskiula aldeko euskararen zedarritzera ausartuko naiz, nire galdera-sorta erabiliz (irakur B1.4.4 atala eta 'kertzalea eta honen galdera-sorta, etbez etbe').

Espero zitekeen bezala, elzek hizkuntzan ageriko aztarnak utzi dituzte, eta mintzaira-mugak eta eliza-mugak bat egiten dute (ikus A2.1.2 ataleko mapa). Eskiulartzat jo daitezkeen ezaugarrien artean, ondokoak aipatuko nituzke:

- *dikat* saileko adizkiak (*diokat*, ...).
- *erraneko* saileko geroaldia.
- *ebili*'en sailaren maiztasun handiagoa.
- *diño* saileko adizkiak.
- nokaren maiztasun handiagoa.

Ezaugarri hauek Barkoxe aldeko aldeekin lehian dira: *diat*, *erranen*, *ebiliko*, *dino*.

Hitz bakan batzuek aldera ezberdinak dituzte. Adibidez, *illi* diote Eskiulan eta *ülü* Barkoxen.

Ezaugarri batzuek ez dirudite eremu oso bateko edo besteko, hala nola:

- *zian* saileko adizkiak, bi aldeetan han hemenka agertzen baitira, *zia* sailekoak baztertu gabe.
- Botiboa (*ailitz*, *ailedi*) Barkoxe mugan ere bizirik da. Horren erabilpenak gizaldi-kontua dirudi, inolaz ere leku-kontu bat.

Bestela, osagai batzuek bai Barkoxeko aldean bai Eskiulakoan bi aldera dituzte, bata aldera nagusia (*ebili*, *enek*, *libü*, *zia*) izanik eta bestea bakanagoa (*ibili*, *enekin*, *librü*, *zian*).

Map Labels: Ospitale Pea, Josibaia, Arren, Ustasu, Sangoina, Jeruntze, Orrin, Mumurre, Ledeuix, Oloroe, Donamaria, Serpe Gaina, Serpe Pea, Barkoxe, Inhasi, Arhantze, Aramitze, Landa, Ereta, Izorra, Montori.

Other Labels: BI ALDEETAN eneki eta enekin libü' eta librü' ebili eta ibili zia eta zian, TO NO ZÜ, diat, diat dikat, dino, dino diño, erranen, erranen erraneko, ebili'en ebiliko, ebili'en ebiliko, illi, üllü.

Ikerlan pertsonal bat, baina kanpoko erreferentziaz josia



Eskiula-Inhasi (1999) – KOLDO ARTOLA (A batez aipatua testuan) – Solas pertsonalak

Artolak 1999ko apirilaren 14tik 16ra aditz laguntzaile iragangaitz eta iragankorren indikatiboko adizki guztiak bildu zituen. Jean Castillon Dulau jauna izan zuen informatzaile, (Biarnoko) Inhasiko Maisonnave etxaldean sortua, eta bertan bizitzen jarraitzen du. Elizari dagokionez, etxalde hau eskiulatarra da eta herri honen hego-ekialdean dago. Aita bertako ebetarra zen eta ama Hagola etxaldekoa (Eskiula). Eskiulatik bereizten duen erreka-ertzeko udal eremuko iparraldean hamasei bat etxalde euskaldun dauka Inhasik, nahiz aspaldi honetan horietako lauzpabost hutsik geratu diren. Maisonnave etxaldetik Eskiulako herri-barrera errepidetik hiru kilometro hurbil bada; Inhasiko herri-barrera hamaika-hamabi eta Oloroera zazpi.

Koldo Artola

Morfología del verbo auxiliar suletino
(aditz laguntzaile zuberotarraren morfologia)
Pedro Yrizar, 2002 (P. Etxegorri izulita)



NORA eta NORAT Larrasketen arabera

NURA (*nu'a*, azentua U bokalak darama) adberbioa, mugimendua adierazten du, norantz.

NURAT (*nu'at*, azentua A bokalak darama) adberbioa, mugimendua adierazten du, bere helmugan gelditzeko asmoarekin, betiere helmuga eta abiapuntua ezberdinak badira. -AT atzikiaren erran-nahiak: 1/. Mugimendua helmugaren barnean bukatzen da, helmugaren inguruan ordez; 2/. Mugimenduaren xedea helmugan geratzea da, bisita labor bat egin ordez.

Kasu berezia. Bi arau zehatz hauez gain, bada -RA edo -LA erabiltzeko kasu berezi bat, nahiz -RAT eta -LAT logikoagoak diren: leku batean epe laburreko sartzten denean. Adibidez 'banuk etxera eta horra nüik arrunt', etxera noak eta berehala itzuliko nauk. Aldiz, 'banuk etxerat', banaok etxera (bertan geratzeko).

Jean Larrasket

Jean Larrasket, 1939, frantsesetik itzulita
Le Basque de la Basse-Soule Orientale

KZ

Aditz zuberotarraren morfologiaz

Sail honi buruz anitz bada kontatzeko, eta laburbiltzeko Koldo Zuazok honako bereizgarri hauek azpimarratu zituen: 1/. NOR NORI NORK saileko adizkien -EI- erroa; 2/. NOR NORI NORK eta NOR NORI saileko adizkien -(T)Z- pluralgilea; 3/. NOR NORI saileko iraganaldiko adizkiek ez dute ZIT- aurrikia hartzen; 4/. Iraganaldiko hikako adizkien bukaerako -Naren galera (ezaugarri burutugabea); 5/. Aditz trinkoen ordezkatze prozesua; 6/. ÜKEN -IZAN oposizioa; 7/. *IRO aditz laguntzailea.

Koldo Zuazo



Pedro de Yrizarren aipuak

Iraganaldiko aldaerei dagokionez, Eskiula aldeko bi auzoren adizkiak bildu zituela (Alaxe eta Barrena, bata Jeruntzeko eta bestea Inhazeko), Artolaren ondoko oharra gogorazi zituen Yrizarrek:

Eskiula-lhaze. Iraganaldian *güniá/güniñá* (singularra) eta *nütiá/nütiñá, zütiá/zütiñá...* (plurala) bezalako hasierak ditu, *gí-, ní-, zí-...* behar lirakeen lekuetan, hots, zukako alokutiboetan ageri bezala. Iraganaldian 'hik ni' *ereman nünciá/nünciñá* eta 'hark ni' (hikako alokutiboa) *ereman nünciá/nünciñá* berdin ematen ditu [lekukoak]. Iraganaldi honetan ere berdin: 'hik gu' eta 'hark gu' (hikako alokutiboa) ez ditu bereizten [lekukoak].»

Eskiula-Jeruntze. Iraganaldian, hikako alokutiboen bukaerako *n-*a ia erabatekoa da, Eskiula-lhazeko eraitzetan ez bezala. Iraganaldian 'hik ni' eta 'hark ni' (hikako alokutiboa) berdin ematen dituzte [lekukoak], ondorengo 'hik gu' eta 'hark gu' (hikako alokutiboa) kasuetan ere berdintsu jokatzen dutela.

Pedro de Yrizar

morfología del verbo auxiliar suletino
Pedro de Yrizar, 2002

OHARRA: nik egindako mapak erakusten duen bezala (ikus 'zia ala zian?'), kontua ez da herria zein den, etxaldea baizik. Inhasiko erak Maisunaba etxaldean eta Jeruntzekoak Barrakian bilduak zituen Artolak (Irakur A4.3.1 eta A3.3.1.1 atalak).






Zubererak espainolari jesan diona

Gaztelaniati ehundaka hitz hartu ditugu [zuberotarrok] eta ez besteen berdinak beti. Noizbait zuberotarrek zaldiak Ebro aldean erosten zituztenetik, zaldi arra *garañoa* da, eta umeak *podra* "urriza", eta *potro* "arra". Elizako hiztegian ere euskara eta latinaz kanpo, gaztelania nagusi (dilubio, ebanjelio, ermita, eterno, kalbario, linbo, misterio, pagano, profeta, protismo, purgatorio, pentakoste, sakrifizio, salbatore, soberano eta abar). Arruntean gaztelania gauza bibiak adierazteko erabili ohi da (alto, dilubio, kabeza, katxarro, fallo, miedo, txasko, biakho/viejo eta beste). Birauak ere, gehienak, gaztelaniaz daude, nonbait Eriberako artzainekin "mecagoen" erabiltzen ikasi dugulako.

Ez da harritzekoa zubererak gaztelaniaren agertzea, salerosketa gehienak "kastellano ezür beltzekin" egiten zirelako, hala diogu zuen gisa, *kario, komerzio, negozio, prezio, sozio*. Bestalde XIV. mendean hasi-eta bostehun urteez zuberotarrek Andaluziaraino lan migraletak egiten zituzten eta hizkuntza nahasten. Beharbada erdara horren beste eragin bat legoke, eta zuberotarrek hitz egitean ia gaztelaniaren azentu tonikoa daukalako.



Txomin Peillen

Txomin Peillen Karrikaburu
Agur Zuberora, 2001



Biarnoko euskaldunak, eleaniztasunaren aitzindari

- ✓ Nork ote dakien biarnesa ematen
- ✓ Biarnesezko lekukotasunak
- ✓ Eskiulako biarnesik ote den



Biarnes istorio bat⁹

Bazia emazte handi bat mithil bateki. Kota handieki zia. Eskale'ak i'asten zitia. Eta zankhuk nahasi'k, baduk bü'iti goiti behe'a. Ikhusten beiti mithila eri soz, erraiten dok: «ikhusi düzia ene zahetarzüna?». Eta bestik erraiten dik: «ah, Madama, ne sabi pas que s'apperabo ataw» (etxeko andeña, enaküzün hola deitzen zela).

Johañe Mañhagü, 1997/11/30ean

Bazuan emazte handi bat mutil (maior-domo) batekin. Gona handiekin zuan. Eskailarak jaisten (eraisten) zitian. Eta zangoak nahasirik, bazoak burutik goitik behera. Ikusten baitu (duenez) mutila irriz begira, erraten ziok: «ikusi düzua nire bizitasuna? [zaihe = azkar]. Eta besteak erraten dik: «ah, Madama, ne sabi pas que s'apperaba ataw» (ah, ebtekoandrea, ez nekien [züka] horrela deitzen zela [biarnesez erran du, mutila biarnesa baita]).



Poliglosia Zuberoan, jatorria eta egoera

Garaia da desagertzekotan dagoen puzzle baten osagaien biltzea [...]. Izan ere, hizkuntzari dagokionez Zuberoan honako kasu hauek atzematen ditugu:

- Bertakoek beraiek dioten bezala, euskararen orde biarnesez mintzatzen diren zuberotarrak. Hala egiten dute Montoriko bizilagun batzuek, baita Ozeraine, Arribareita eta Jeztazeko bizilagun gehienek, gaskoiez erraztasunez egiten baitute.
- Biarnesa guraso batengandik jaso duten zuberotar euskaldunak, mintzaira gaztaroan Biarno aldeko familiarekin landu dutenak. Itxura guztien arabera, biarnesa gero eta gutxiago hitz egiten dute eta gaitasun apalagoa daukate. Hiztun hauek Zuberoa osoan sakabanaturik dira (Santa Grazin, hauetako bat Lascoume andere biarnes-euskara elebiduna dugu).
- Antzina lan karietara Gaskonia osoan jardun zituzten zuberotar euskaldunak. Gizonezkoak ziren, maiz laueledunak (gatzelania kontuan hartuta). Santa Grazin batzuk ezagutu genituen, guztiak azken hamar urte hauetan zenduta [...]. Agian horrelako gizonezko batzuk Basabürüan oraindik bizirik dira.
- Auzotasun kontuengatik zuberotar elebidunak. Saldo handi bat bada Eskiulan, non bai euskaraz bai okzitanieraz baitakite. Barkoxen, aldiz, gertakaria bakanagoa da, euskal bihotzeko herri horretako gazte gehienak frantses elebakar bilakatu baitira (sic).
- Biarno euskalduneko bizilagunak, Jeruntzeko, Sangoineko, Inhasiko, Aramitzeko eta Landako alderrietako zenbait hamarka etxetan. Bertakoek auzokideekin euskaraz bezainbat okzitanieraz egiten dute.
- Euskaldun gehienak, noizean behin erran-molde gaskoiak erabiltzen baitituzte, hala nola 'Diu vivant!', 'Dio vivöstas!', 'Per Diu!', 'Hilh de putal' sakreen aldetik, edo 'viste hêt e plan futut', 'Minja dròla'.

Txomin Peillen, 1998
Les Emprunts de la Langue Basque à L'occitan de Gascogne

OHARRA. Kontu jakingarria hau: autoreak Eskiula Biarno euskaldunetik karpo bailtzen aipatzen du.



Eskiulako auzapez biarnesdun baten gogoetak: ahozko bertsioa

- G. David Grosclaude, berriemailea
B. Jean Berdot - Jonolo

- G. Lou biladje d'Esquioule, qu'ey u biladje bascou ou qu'ey u biladje biarnés?
B. *Qu'ey u biladje bascou en terro biarnés.*
G. Dounc qué bous disé qu'et coulounisatous de la terre biarnés.
B. *Oui. qué soun colonisatous qu'en bashats de... escuse mi béarnés, ney pas hieiro bou qué parli mey bascou qué béarnés... qu'en bashat de Larrau é de Sent Engrassi en mil shint cent sésento. qué crey, y qu'aben colonisat la terro d'Esquioule.*
G. Qui'n biou ouey lou diou lou villadje d'Esquioule la suo double culture qué soun mondes qui soun bascou més qui parlen tabé biarnés pér mou de qué, pér mou de qué éra obligatori de parla biarnés?
B. *Adaro, nou. Abants lous maquignous qu'éron biarnés. Lous abitants d'Esquioule qu'anabon a Avlourou al mercat y qu'éri nécessaire de parla béarnés. Adaro lous jouens nou. que parlon bascou. Français, y bascou de tens en tens.*
G. Qué bou disé que lous qui sabon las dués lengues o las très dap lou frantsés qué soun u mounde qué a mey de cinquante ans.
B. *O. Qu'an mey de cinquante ans. cinquante e chessant ans.*
G. Bous per exemple, couan eit qu'abey coumençat d'apréne lou biarnés qué pen soubienet ou alabetz qu'ey biengut après de cap a douzde, tredze, quatorze ans.
B. *Qué biengut tard? Qué parlabi bascou a dinc a shing ans. Après qu' é apréso lou frantsés a l'escolo, y tout doucemen. lou béarnés en escoutan lou gran pay é lou pay coun lous maquignous y en parlan y après en escoutan.*
[...]
G: Qwan parli de charnégou, énta bous, aquét mout qué bow disé exactemen ?
B: *Né passo pas pla. Qu'ey drin pejorativ, pas hieiro, més drin.*
[...]
G. La culture du billadje qu'ey tabé la cançou basque, la dance basque?
B. *O. hieiro estecat a tradiciou. Esquioule qu'ey u comuno charnégou, "frontalière". Qu'ém hieiro estécats a la lengo, a la tradiciou, a la culture, a la canciou, al folcloro, y a tout aquéro.*
G. Qu'é bist qu'abet hicat a l'entraça deu billadje u panéou en bascou, Eskiula, qué rébindicat dounc la voste basquitud, si vous disé.
B. *Qu'y a duos significacions. La pruméro, qué... qu'é u rébindiciou de basquitud si boulet, péro la mey importanté qu'ey qu' y abé hieiro pintrés. En lou panéou frantsés qué abé hieiro pintrés de negro, de roui, de touts las color y déspus qu'aben hicat et panéou Eskiula en bascou, qué a pas mey nat.*

David Grosclaudek Jean Berdoti egindako elkarrizketa
FR3, "Viure al país (1990)

BIARNOKO EUSKALDUNAK

historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean



Philippe Etxegorri



BIARNOKO EUSKALDUNAK

historiaren eta
hizkuntzen
bidegurutzean

Liburuaren lehen sailak gizarteari lotutako argibideak biltzen ditu, hala nola: historia, demografia, auzoak, etxaldeak eta hizkuntza-egoera. Bigarren sailak Eskiula aldeko euskara deskribatzen du gehienbat, euskalki zuberotarrean duen lekua erakutsiz, eta bertako erromantze gaskoiaren errealitatea ere azpimarratzen du.

Bi sail hauen gibeletik, bada ezkutuko egitasmo bat. Eskiulak eta inguruko alderriek garrantzi gutxiko kontua irudi lezakete, landa-eremuko edozein herrigunek bezala, historiaren eta gizartearen joera nagusietarik baztertuta. Ez da hala, jakina, eta bai historian bai hizkuntza-kontuetan duten lekua erakutsiko da liburu honetan. Alde batetik, herri-mailako gertakariak Europa Mendebaldekoetan kokatuko dira, eta bestetik zubereraren ikasteko gida bat emanen da, Eskiula aldeko mintzairatik abiatuz.

Agian irakurleak zeraz jabetuko da, Eskiula eta bertako alderri euskaldunak ez direla ahantzitako bazter bateko bizilagunak, baizik eta mundu batzuen arteko bidegurutzeko lekukoak.

SUSTATZAILEA

Zingizango
Legazpiko Euskara Elkarte



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística

Zingizango
Legazpiko Euskara Elkarte